

JARDUERAK EGITEKO GUNEAU UZTEKO ARAUDIA

Nafarroako Kutxa Fundazioaren zentro kulturala da CIVICAN, pentsamendu eta kultura partekatuko gune bat, helburu duena Nafarroako kultura eta hezkuntza ekosistema bultzatzea eta aktibatzea, elkartasuna eta gizarte ekintza sustatzea, eta herritarren eta gizarte eta kultura erakundeen parte-hartze aktiboa bermatzea.

Horregatik, Nafarroako Kutxa Fundazioak Nafarroako erakundeen esku jartzen du CIVICAN kultura gunea, garapen kultural eta sozial hori bultzatuko duten jarduerak egiten laguntzeko.

Kasu honetan, CIVICANek tarifa berezia aplikatuko du guneak alokatzeko.

Xedea

CIVICANeko guneak **alokatzea** Nafarroako Foru Komunitateko irabazi asmorik gabeko erakunde, instituzio, elkarte eta fundazioei, betiere Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntza deialdietan parte hartzen badute eta egin beharreko jarduerak merkataritza izaera baldin badu; esate baterako, ikastaroetako edo jardunaldietako izen-ematea ordaindu behar bada eta/edo aurkezpenetan liburuak salduko badira.

Nafarroako Kutxa Fundazioak izaera kultural eta/edo sozialeko jarduerak egiteko utziko ditu gune horiek, betiere jarduera publikoak eta irekiak badira eta lantzen diren gaiak bat baldin badatoz erakunde eskatzailearen eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren helburuekin.

Eskaerak jasotzeko epea

CIVICANeko guneak erabiltzeko data baino gutxienez 15 egun lehenago izapidetu behar da gune horiek uztea eskatzeko formularioa. Eskaera aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, 5 lanegunekoa izango da erabakia hartzeko epea.

Dokumentazioa:

Erakundeak behar bezala bete beharko du guneak uztea eskatzeko formularioa, eta bertan zehazki adierazi eguna, ordutegia, eskatutako gunea, sartzeko modua, jardueraren deskribapena, eta jarduera egiteko beharrezkoak dituen baliabide teknikoak, kanpoko zerbitzu gehigarriak barne.

Erakundeak CIVICANen gune bat uztea eskatzen duen lehen aldia bada, erakundearen eraketa agiriaren, estatutuen eta identifikazio txartelaren kopia bana aurkeztu beharko du, baita eginen duen jarduerari buruzko txosten bat ere.

Alokatzeko baldintzak:

- Erakunde eskatzaileak zainduko du araudi hau eta edukierari, segurtasunari edo egile eskubideei buruz indarrean dauden legezko arauak betetzen direla.
- Jarduera antolatzen eta egiten beste erakunde batzuek lagunduko badiote, erakundeak horren berri emanen dio Nafarroako Kutxa Fundazioari. Era berean, jakinaraziko dio erakundearen, Gobernuaren eta/edo udalen zer ordezkari instituzionalek parte hartuko duten jardueran.
- Jardueraren zabalkunde materialean (eskuorriak, kartelak edo sare sozialak) Nafarroako Kutxa Fundazioaren logotipoa azalduko da, eta adieraziko da ekitaldiaren laguntzailea dela.

- Utzitako guneetan ez da aldaketarik eginen, eta ez dira aldatu, ordezkatu edo kenduko Nafarroako Kutxa Fundazioari erreferentzia egiten dioten logotipoak.
- Nafarroako Kutxa Fundazioaren programazioaren eta guneen erabilgarritasunaren mende daude guneak uzteko irizpideak.
- Erakunde eskatzailearena da instalazioen erabileraren eta instalazio horiek jasan ditzaketen kalteen gaineko ardurak, eta CIVICANeko materialak edo egitura hondatuz gero, bera izanen da erantzulea.
- Areto bakoitzak altzari eta ekipamendu tekniko propioa ditu. Aretoa nola dagoen antolatuta, halaxe errespetatu beharko da, eta, aldaketarik behar izanez gero, aldeztatik kontsultatu.
- Eginen den jardueran catering zerbitzua behar izanez gero, zerbitzu hori CIVICANeko kafetegian kontratatatu beharko da.
- Sukalde gunea garbitzeko kostua (40 € + BEZ) izanen da, garbiketa zerbitzu gisa.
- Jarduera bat streaming bidez emititu nahi izanez gero, kostuak hauek izango dira:
 - ❖ Hitzaldia/aurkezpena - 50 € + BEZ
 - ❖ Egun erdia - 80 € + BEZ
 - ❖ Egun osoa: 150 € + BEZ
- Igerilekuko segurtasun eta osasun irizpideei jarraiki, Nafarroako Kutxa Fundazioak izendatutako monitore tituludunek zainduko dute gune honen erabilera.
- Nafarroako Kutxa Fundazioa instalazioen jabea denez, aurreko protokoloak betetzen ez diren kasuetan ere utzi ahal izanen ditu CIVICANeko guneak, hala nola erakunde publikoei: Nafarroako Gobernuari eta udalei, profesionalen elkargoei, ikastetxeei eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren ildo estrategikoekin bat datozen beste jarduera batzuk antolatu nahi dituztenei.

Ukatzea:

CIVICANeko guneak ez dira utziko:

- Kolektibo motagatik, edo jardueragatik beragatik, ez bada betetzen izaera sozialeko edo kultureko jarduerak izateko baldintza.
- Jardueraren helburuak talka egiten badu Nafarroako Kutxa Fundazioaren helburuekin.
- Jarduera erlijioso, sindikal edo politikoak baldin badira.

Irisgarritasuna:

CIVICAN gune irisgarria da, eta irisgarritasuna kudeatzeko sistema bat du, AENORek ziurtatua, bere zerbitzuak eta jarduerak eskuragarriagoak izateko.

Behar berezietarako laguntza elementurik behar izanez gero, mesedez kontsultatu ea badagoen halakorik ekitaldia edo jarduera egin baino gutxienez 15 egun lehenago, helbide honetara idatzita: informacioncivican@fundacioncajanavarra.es

CIVICANeko gune guztiek interneterako sarbidea dute, WiFi sare irekiaren bidez.

CIVICANek streamingen emititzeko kanal bat du helbide honetan:
[YouTubeAuditorioFundacionCajaNavarra](https://www.youtube.com/channel/UC...)

Guneak:

GUNEAK	EDUKIERA	ERABILERA	EKIPAMENDUA	TARIFAK
AUDITORIUMA	151 pertsona	Biltzarrak	Ordenagailua	350 € (egun osoa)
		Jardunaldiak	Pantaila	225 € (egun erdia)
		Hitzaldiak	Proiektorea	70 € (ordu 1)
		Proiektzioak	Internetarako sarbidea	
		Pentsaurrekoak	Streaming (ikus uzteko baldintzak)	
		Ikuskizun eszenikoak	Indukzio begizta	
			Mikrofonoak (mugikorrek eta finkoak)	
			Eszenatoki balioaniztuna (14 m x 3 m x 7 m)	
			Pentsarako RAC-a	
		Azpitulua jartzeko aukera eta itzulpen zerbitzua		
1. ARETOA	40 pertsona	Ikastaroak	Ordenagailua	175 € (egun osoa)
		Bilerak	Proiektorea	100 € (egun erdia)
		Pentsaurrekoak	Internetarako sarbidea	35 € (ordu 1)
2. ARETOA	30 pertsona	Ikastaroak	Ordenagailua	175 € (egun osoa)
		Bilerak	Proiektorea	100 € (egun erdia)
		Pentsaurrekoak	Internetarako sarbidea	35 € (ordu 1)
3. ARETOA	80 pertsona	Biltzarrak	Pantaila	250 € (egun osoa)
		Jardunaldiak	Proiektorea	100 € (egun erdia)
		Hitzaldiak	Internetarako sarbidea	50 € (ordu 1)
		Proiektzioak	Ordenagailua	
		Ikastaroak	Mikrofonoak (mugikorrek eta finkoak)	
		Pentsaurrekoak		
4. ARETOA	30 pertsona	Ikastaroak	Ordenagailua	175 € (egun osoa)
		Bilerak	Proiektorea	100 € (egun erdia)
			Internetarako sarbidea	50 € (ordu 1)
ONGIZATE GUNEA	25 pertsona	Ikastaroak	Musika ekipoa	200 € (egun osoa)
		Materclassak	Mikrofonoak	100 € (egun erdia)
			Kirol materiala	50 € (ordu 1)
SUKALDE GUNEA	25 pertsona	Ikastaroak	Altzariak, sukaldeko tresnak	300 € (egun osoa)
		Showcooking	Ikus-entzuleentzako auditoriuma	150 € (egun erdia)
		Dastaketak	Despentsa, sukaldeko tresneria, baxera	50 € (ordu 1)
IGERILEKUA	16 pertsona	Ikastaroak	10,20 m x 13,70 m-ko igerilekua	65 € (saioa)
		Sendatzeko jarduerak	Sakonera: 1,10 x 1,40 m	
		Kirol jarduerak	Aldagelak	
		Jolas jarduerak	Armairu gune mistoak	
		Prestakuntza jarduerak	Igogailua igerilekuraino	
			Uraren tenperatura: 28°C	

Tarifen taulan ez dago sartuta BEZa (% 21). Igerilekuan egiten diren sendatzeko jarduerak ez dute BEZik, 37/1992 Legearen 20. artikuluko 2. eta 3. puntuetan ezarritakoaren arabera.

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Arduraduna: FCN Helburua: CIVICANeko guneak erreserbatzea, uztea edo alokatzea, informazioa bidaltzea eta inkestak egitea. Eskubideak eta informazio gehigarria: zure datuen tratamenduari buruzko eskubideak erabil ditzakezu eta tratamendu horri buruzko informazio gehigarria lortu gure webguneko pribatutasun atarian:

https://www.fundacioncajanavarra.es/sites/default/files/reserva_de_espacios_civican.pdf